

G.H.

Manzan. Takt. 1900

BEHARRAREN OSTIKOA.

- ANTES - Arotze - 60 urte - xoroa
 - GANIX - Arotz - mutila - 60 urte. Maingu eta begibakarra
 - LUTTU - 40 urte - Herriko mutua. Ergela
 - ARANTZA - Arotzaren aleba. 18 urte. Neska ederra
 - PELLO - Herriko mozkorra. 40 urte
 - LAYI - 8 urtetako neskatila pollit bat
 - LACTIN - 45 urte. Trätulari maltzurra
 - KONTXESI - Jaun erretoraren gelaria. 50 urte
 - ALTA IOANES - 50 urte. Gizon ederra
 - ALTA UNAI - 25 urte. Eskualerriko haur eder bat
 - LUTTIKO - Mutil konkorra
 - ZORROILLO - Tripa handia. 50 urte
 - PIERRES - Baserriar etxeko-seme ederra. 29 urte.
 - DOLINIKI - Pierres-en ama. 50 urte.
- Musikari, ots-egile eta bertze.
Erri-usaina.

--:--:--:--:--

LEHEN ZATI

Lehen agerraldie.

Herriko bateko arotzegi zahar bat. Aren barnean gare. Buruz buruko atetik, mendiak ageri. Ezkerreko leihotik, herriko. Eskuineko atetik, barretzerat gaki.

Abere merkatu eguna. Kanpotik heldu marruma, irrintzin, soinu, bertso-kantu eta bertze, merkatu-eroa ekarki. Barneko burnisoinuak, aldiz arotzegi-eroa.

Oialak idekitzean, nagusi-mutilak, tenka ta tanka, lanean ageriko. Leio sintonizetik gizon bat iraganen, behorra sokatik ekarki. Beste mutiko bat zerriarekin heldu. Gero ere, nohiz nahi, ageri bitez kanpoan trätulari ta kampañerrek harat-hunat ibilki.

- GANIX - Ze tenore dugu, nausia ?
- ANTES - Iduzkiak erraiten digunez, eguerdi urbil.
- GANIX - Ahantxa eguerdi ! Merkatu-eguna ! Plaza guzia behi eta idiz be-tes : Horra ! Eta gu hemen, lanik gabe, burnieri alfarnetan joko. Behereko erotz zirtzil ori hanez itoa duzu egun ere. Eta guri, aldiz, asto zahar bat ere ez urbiltzen.
- ANTES - Bai ! Trankilago gaituk hola !
- GANIX - Trankilago, e ? A ze nausia !
- ANTES - Mutila nolako, nausia holako.
- GANIX - Amen.
- ANTES - Zu hor eta ninemen.
- GANIX - Zaude ixilik gizona, zaude ixilik, zure ditxo eta bertso eta er-
ren zaharrekin. Utzi hoiak bere gisa, Matusalen-entzat. Jautsi
zaite hodoietarak, gizona. Eta lotu zaite lanari. Mixeriak janen
bai gaitu bertzela. Heriotuko bai naiz ni etxe huntan, heriotuko.
Lehen xoro bat izaki etxean eta orai laguna behar ?
- ANTES - Xoratu adi muttikoa, xoratu adi. Ni trankil bizi neuk hola. Eta
ez hi bezala : beti zakurraren buztanari lotua. Munduan, xoroak
bizi zaizkit nahi bezala. Bertze denak... shal bezala.
- GANIX - Zainak ere hasiak zaizkit neri nautsitzan eta.... (Leihotik oiuka)
Segi ! Segi ! Zerteko hemen gelditu ?
- ANTES - To ! Hasia da leihotik predikatzen. A ze mutila !
- GANIX - Segi antzina ! Segi ! Ez emen geldi ! Guk ez bai dakigu ferratzer
Guk emanikako farrak laister galtzen bai dire bidean ! Segi sint-
zina ! Segi antzina ! Joan behereko erotzarenengana ! Harek eginen
lan obea ! Ze ba ! Urrezko ferrek emaiten bai ditu harek ! Eta ur-
rik ! Joan ! Joan ! Urde zikinak !
- ANTES - (Atetik oiuka) Agur Petten, lagun zaharre ! Herketurak etorria
hi ere ? Ontsa duk ! Egik tratu ! Baina kasu gero ! Kasu uriarri !
Iduzki-aize zakar hunez ekarriko bai du bere !
- GANIX - To ! Hasia duk ori bere aizeekin...
- ANTES - Hodoi beltz hoek ez bai dire lo !
- GANIX - (Bere baitan) Aga, ago, hodoiari beha. A ze nausia !

- 2 -
- ANTTES - (Berneret sartuz) Kasi eiz hi, marmarke ? Arnoaren beror nah. ego duklik orai ere, sutegia baino.
- GANIX - Paso.
- ANTTES - Gozen... Meingu, begibakar, bizkarre okertua, deusetako inarrrik ez. Indarrrik ez, eta mutil !
- GANIX - Sosik ez, eta neusi !
- ANTTES - Paso. Baina kasu gero, ni ere kasiko bai naiz Borda-goka.
- GANIX - Borda-goka ? Nun dituzu erregeak ? Zaldi tzar bat ba genu....
- ANTTES - Etorriko da, etorriko.
- GANIX - Noiz etorriko ? Ez ditake goizegi. Egun markatu-eguna. Bazkal tzeko tenorea laister.... bazkaltzen dutenentzat. Eta gu emen lanean kasi gabe hoino, asto zehar bat jinen zaunkun esperantzen.
- ANTTES - Ze bakea !
- GANIX - Ze gibela! Neregatik.... badao. Ni zahartua baino miseria. Baina gure alabaren goseak ere ez zaitu igi-araziko, gizona ? (Atetik beha) Eta hunat ez fixik heldu : ez idik, ez behorrik, ez astorik...
- Haurrak - (Atetik) Merkatu eta sosik ez ! Lanik ez ! Lanik ez ! Hu ! Hu ! Hu !
- GANIX - Hoek ere ferratuko nituzke ba nik, gustuan; eta hurrik.
- ANTTES - Beinan errak " Borda-xuri" -ko idiak ez zizkiten egun ferratzeret ekanri behar ?
- GANIX - "Borda-xuri" -ko idiak guk hemen ferratu ?
- ANTTES - Zer duk ba ?
- GANIX - Zer duden ? Zango bat heutsia janeko, eta bertzea ere amor ematen kasia. "Borda-xuri" -ko idiak medarriketu oiek guk hemen ferratu ? Ez ! ez diotet hoieri zangoa entsiko. Ez eta ordarretarik atxikiko. Ez ba lire idi jokari, ostikari, barne usteleko ebere zital gaiztoak, ez lituzteke Sara-tik hunat ferratzerat igorriko. Idi gorriak, begi oker hua segurik. Haren barnea ! Urbil orduko.... zanpa ! Eta ez bai naiz ni, sorginek bezala idean ibiltzeko sortua. Aituzu ?
- ANTTES - Gizona, berrogoi urte hauetan ferratzen ibilia nauk ni ere. Eta huna : hemen nuk oso osorik.
- GANIX - Ze ba ! Zu arotze izaki. Eta ni arotz-mutila.
- ANTTES - Gizona ! Hire lan izigarriak saristatzeko, behariko diat hipretzat galdetu urreko medalla handi bat !
- GANIX - Ez duzu galdetu beharrik. Galdetu gabe ere, artzen bai ditut. Huna batto hemen, begi kokoen, ederra. Orai hogoi urte artua. Oroitzen ze, "Barraldia" -ko bea xuri-beltz horek adarraren puntan nola ekarri zuten orhoigarria ? Ekarri ez, ereman. Arek ustu bai zeutan begia.
- ANTTES - B. hatzak pttat hedoi hoiak zertan diren...
- GANIX - (Zangoa eskuetan artuz) Eta hau ere emen da. " Zubiondo" -ko asto zital hua ! Iduri zuen sengeruño bat, prestu-prestua ! Aren begi goxoak ! Aren buru apala ! Bertze hainitzek bezala haren ere : saingusk bizkarreen eta kolkoan infernuko debrua.
- ANTTES - Gizona ! Os Sara-rat, os Senpere-rat, os Askain-arat... Han ere beditut arotz-mutilak. Zenbat dituk ezagutu, ki bezala, alde guzietarik xestu ta urretuak ?
- GANIX - Ze, be ! Sara-ta, Senpere-ta, Askain aldeko behor eta idi maltzur hoek ez bai dituzte bertako arotzek hartu nahi izaten. Norat ereman eta, guregand ekarri. Eta guk hartu behar, bizi beharrez. Zu hedoiari bea burua galdu zuen ez geroztik, ausarkiago ibilki bai da goser gure etxean lena baino. Denek bai dakite, denek : hemen ferratuko idiek atera orduko artua dutela zure mutilaren eitea. (Meingu ibilki).
- ANTTES - Paso, nik oai ere.
- GANIX - Gozen.
- ANTTES - Baina... zertako ago ba berrogoi urte hauetan hemen, gure etxean
- GANIX - Zertako ? Lege zaharreko mutil ergel hoetako batto ni nausulako. Ergela bai. Etxeari ta etxekeori, nausia bere baino lotuagoa. Eta ez dakit nik : alergundu zinenez geroztik, sartu zitzaidan zure haur gaixo hori errainetara. Etxe bakotxak ere izaten du bere usaina. Eta nik usain berriari beldur. Hala naiz gelditu hemen mutil. Mutil eta mutil zehar.
- ANTTES - Ze prediku ederra ! Per omnia secula seculorum !
- GANIX - Zer den burua galtzea !

II ^{gaur} Agerraldia

Lehengoa eta Muttu. Gero Arantza.

- MUTTU - (Sar-eta, eginen ditu oiuku zonbaat)
- ANTES - Hemen aiz luttu ?
- MUTTU - (Oiuka)
- GANIX - Bai, bai... Ago ixilik, ago ixilik.
- MUTTU - (Keinuka : Gaitze berriak dituzela)
- GANIX - Nun erosi dituk ? Merkatuan ? Norik eman hiri sosa ?
- MUTTU - (Oiuka)
- GANIX - ~~San~~ erretorak ? Ontse duk, ontsa. Mutiko pullita ^{guz}. Tira. ~~Har~~ zak ogi puska hau. Joan ~~kontu~~ orai. Utzi gaitzak leneen.
- MUTTU - (Oiu eta espantuka)
- GANIX - Zer, diok ? Lenik gabe gaitukala ? Hartarat etorri aiz hi, gu ~~lehen~~ arazteret ? Oa hemendik fite. Bertzela....
- Heur batek - (Leihotik) Hemen zegok, hemen zegok !
- Heur guziak - (Batean) Muttua! Muttua! Erreken mihia geldua ! luttua!
- Muttua !
- MUTTU - (Leihotik haurneri oiuka)
- GANIX - Ez zek odol gaixtorik egin, gizona. Gorrituko dizkiat nik, noiz-
paiten, hoen ipurdiak.
- MUTTU - (Aterako ditu sarpatil goxoak eta xixtu bat)
- GANIX - Norentzat dituk hoek erosi ?
- ANTES - Xixtua nerretzat, xixtua nerretzat !
- GANIX - Zertako behar duzu zuk hori ?
- ANTES - Hedoiak geldi-arazteko. Holaxet : tuuuuuuu.....!
- GANIX - Ze burua !
- ANTES - Bertzela, joko bai dute hoek elgar, gain hartan.
- GANIX - (Muttu-ri) Jan bixkotxak, jan.
- MUTTU - (Buruarekin ez-etz)
- GANIX - Norentzat dituk ba ?
- MUTTU - (Beratze alderat behatzen)
- GANIX - Arantza-renzat ?
- MUTTU - (Buruarekin baiets)
- ANTES - (Atetik hedoiari beha) Tuuuuu..... Tuuuuu.....!
- GANIX - (Muttuari) Utzak gure Arantza bakean. Eman neri goxo hoek. Nero-
nek emanen Arantza-ri, hire izenean. (Muttu baratze aldera
abiatzen) Norat oa ? Ago hemen ! Eta berritz ere atematen ba
kaut nik Arantza-ren ondolik, ikusiko duk. Badik harek baratzean
nahiko lan, hire beha egon gabe. Entzun duk! Oa. Ogia jenen duk
bidean. Aitu duk? Oa !
- MUTTU - (Lotuko da oiuka)
- ANTES - (Leihotik hedoiari) Tuuuuuuu..... Tuuuuuuu. Hi geldi ! Hi sintzi-
na ! Tuuuuuuu.....!
- ARANTZA - (Baratzetik heldu, sintzurra dilindan) Hemen zare luttu ? Ze
berri merkatu hartan ? Gaitze berriak dituzula ? Ze gizon pullita!
Goxoak ere bai ? Norentzat dituzu ? Nerretzat ? Milesker gaixoa,
milesker ! Nola ? Zer ? Muxu behar duzula ? Ez gizona, ez, egun
ez da Berako ! Andre-Maritzen emanen dautzut potta ? Zer erraiten ?
Andre-Mariak urrun direla ?
- GANIX - Oa hemendik ! Nazketzen hesia nauk eta.
- ARANTZA - Etzezula hola igorri, Ganix !
- GANIX - Ongi bai dekit nik honen berri. Oa !
- Heurrek - Muttua ! Muttua !
- MUTTU - (Haurren ondolik oiuka geki)
- ARANTZA - (Atetik) Agur luttu ! Milesker !!
- ANTES - Hedoi hoek ez gelditzen ! Ez eta iduzkie ! Izarrek ere ez ! Omen!
Omen!!! Eta hoek elgar jotzen ba dute ? Akebo gero ! Beharrik
nago ni hemen gain hortan entolatzeko pittat "zirkulazionea"!

III ^{gaur} Agerraldia

- ARANTZA - Jaingo maitea ! (Jartzen de)
- GANIX - Ze-uzu ?
- ARANTZA - Izerdia ! Iduzkiak berotzen ba du gure baratze hortan
- GANIX - Zeto hunt. Freskatuko zare hemen, burniari joko sutegi ondoan.
- ARANTZA - Aintzurra nun duzute, aite ?
- ANTES - Aintzurra ?
- ARANTZA - Lurra prest dut. Lusegerra egiten (asiko ba nindako segidan ?

- ANTES - Lusagarre egiten ? Kasu! Kasu ! Leinu gorriska, ipurtarin hoek ez bai dire barnea utsik heldu. Agian bai... bearbe ez... Kasu beti.
- ARANTZA - Bainen Aita, zure errana egiteagatik baratzea ere mortua bezelaxe dugu : porruak egiteko elurra heldu dela, babek landatzeko basusari beldur, batean galarne dela eta bertzean idortea.... zeto baratzeraino,aita. Deusik ez da. Bizpahiru aze elgarri begira. Bertzerik ez.
- ANTES - Ni baratzerat egun ? Ez,ez,ez,ez... Astoaren beharri koloreko lainu apal hoek Barrun gibelatik ageri direla, etxe barnerat, etxe barnerat zalu. Hoek ekar dezakete harrira ere.
- GANIX - Hedoi osoa buru gainean hartuko ba^{lu} !
- ARANTZA - Zer egin behar dut Ganix ?
- GANIX - Lot zaita, gaixoa, lot zaita. Goseak hilen bai gaitu beartzela. Zaku hortan duzu lusagar azia. Emanen dautzut nik, sarri, esku-golpe bat. Erakdeak jin beharrek omen, sarri hiltutzean, gurutzea ta ezkilaren keka. Hoino akabatu gabe ditut. Bainen.... (Ganix-ek ematen Arantzari zakua bizkarretik dilindan) errazu Arantza : "Eguzkitza"-ko Merixen-en eztsietara komidatua omen zere zu ere. Ez didazue orai ere zuek neri deusik erran,baina nik usaina artu. Noliz dituzute esposak ?
- ARANTZA - Heldu den larumbatean
- GANIX - Geki ze ?
- ARANTZA - Ba pentsa !
- GANIX - Ze-uzu ba ?
- ARANTZA - Gogorik ez
- GANIX - Gogorik ez ez edo..... soinekorik ez ?
- ARANTZA - Zeude ixilik gizona, zeude ixilik, zozokeririkherran gabe
- GANIX - Zo-zo-ke-ria ? Etxe barneko berriak, jekin ez baina, usain du egiten nik, usaindu. Nor dautzue espos-legun emana ? Piarres naski ?
- ARANTZA - Omen !
- GANIX - To, hua legun eta zuk gogorik^{ez} ?
- ARANTZA - Bai Zertako Pierres-ekin ibili ? Hua etxe oneko semea duzu. Haren burusoak etxe-jabeak. Barrukian badiztuztele...., zenbat erran dute ? hogoi buru edo...
- GANIX - Te bon... Pierres-en burusoak barrukian ukanen dituzte beharba, beharba!, hogoi buru. Bainen sudurrian bi zilo heiek ere gure gisa : sortzean jin eta hiltzean gen. Mutikoak maite ba zaitu.. Ez deit nik....
- ARANTZA - Ete bon. Harek deitzi ditzala Amasei behiak. Badu nahino lan. Zuk eltzekeria arrimatuko dizu. Ezkontza ? Bizitzaren berritze-ko egina dizu Goiko Harek. Eta ofizio hortako ez duzu ez eskola eta sosaren beharrik. Bizitzaren berritzaileak begoz gazte, eder eta garbi. Gazte ? Neretako haurra zere zu beti. Altzuan jarraita, ttuttua,nezu eskutik Amasei aldiz hartua. Oritzen ze, nausia ? Hunek bizpahiru ilabete.... zu alargundu berrie...
- ANTES - Urte hortan egin zituen urialde izigarri heietez ari ze ?
- GANIX - Ze urialde ta ze debru ! Lenho medarikatua hoek utzi itzazu, gizona, bere gisa. Erhotuko bai gaitzua Xerrotik, erhotuko ! (Arantza-ri gorxoki) Zuk ama galdu berrie-ta, ez nahi ttuttua artu nere eskutik. Ze lenak ! Egun batez etorri zitzauten bururat : To! Ete nik, humen ama zenaren puska emenen ba nitu soinean ? Haren mottua buruan ezarri-eta, harek ibiltzen zuen puska zahar batekin ezteni nuen gorputza. Geroztik ? Ze Ele, zafle ecaten zenuela esnea, amaren altzuan zinelakoan naski.
- ARANTZA - Ganix, ze gauza pullita !
- GANIX - Pullita ? Zu bai orduan pullita. #6ai ederra omen zere. Ez dekit nik. Nor berak altxatutako haurra, haur duzu beti. Bainen ur-biltzen zeikizun mutiko gaztien begietan irakurten dut nik zure edertasunaren berri. Eta hirugarren hua, hua bai, hua, utzi nere kontu : eskualde huntako iturrietan ez bai da gure haurra baino iturri garbiegorik. Nik gure erreiten. Lege zaharreko mutil eta heskatoen usai zeherra : gure nausia, gure etxea, gure haurrak.... Papereten ez baino....
- ANTES - Zer duk orai ere predikua ? (Kantuz) Dominus vobis-cum..
- ARANTZA - Tife,tira, geki naiz ni lanera, zuek elgarri mokoko lotu baino lehen.

GANIX - Elgarri mokoka ? hartako ere behar bai da umorea ! Bainen entzun ongi, Arantza : Ni bizi baneiz, izanen duzu zuk ere eztaieteko soineko berria. Ze ba !

IV - Agerraldia

Antes, Ganix eta Pello. Gero Mayi.

Pello - Nor ari da hemen meza ematen ? Hemen ere apezak nausi ? Gure denboren etzen hola korrik. Elize barnean egoiten ziren apezak lehen. Eliza-bidetik urrunsko, mozkorrek ez zuten apezekin tops egiteko irriskurik izaten. Hala mozkorra trankilago bizi. Eta apezak ere bai. Elgarren errespetuan. Bainen orai ? Orai ezpaite gehiago errespeturik. Ez mozkorrek apezarentzat, ez apezak mozkorarentzat....

Gora beti merkatua !
Sosa duenak tratua !
Egarri denak artoa !
Bakotzak bere gustoa !
Gora mundua !!

Ori Antes arotza ! Le Haréchal Antes !! Nola dise lanho hock, gizona ?

ANTES - HUUUUUU...! Orai ere ^{ikun} ^{ikun} ^{ikun} ^{ikun} ^{ikun} ^{ikun}....

GANIX - Lanhoak ? Beti izanen dituk ^{ikun} ^{ikun} ^{ikun} ! Ez bai ditek, gaixak, ura baizik tripan !

ANTES - Ze behar duen Pello ?

PELLO - B-kes

GANIX - Eda ~~z~~zak xorta bat.

PELLO - Neurien ! Ni neurien beti ! Neurien ! (Edanez) Herriko Erretora..

herriko suzapeza.... herriko midikua.... herriko mozkorra...
lau gizon gutuk herrian eta... ezin elgar aditu ! Nik erraiten dudana : bizi gaiten bakean ! Bai zera ! Erretorak suzapeza begitaratean izaki, suzapezak midikua ezin ikasia, midikuek mozkorran-angetik zernahi errenka... lau gizon izan herrian eta ezin bakean bizi. Ni ez bai nauk mozkor bat. Ni nauk herriko mozkorra ! Eta hori zer duk ? Ofizio bat. Nik, aita zenarengandik ikasia. Harek ere, berrogoi ta kamar urte egin zizkit hementxe herri huntan, mozkor plazatus. Eta nik orai heri segida hartu. Gure aita zenaren enterramendua gogoan duk, Ganix ?

GANIX - Hemen ez da bertze hola korrik ezagutu, Pello

PELLO - Ni ere, esperantza hortan bizi nauk ba

GANIX - Tira, gizona, bertze xortaño bat....

PELLO - Ez, ez, ez ! Mozkor betek odanen dik; eman-ahala, ^{zernahi} ^{zernahi}. Herriko mozkorra... ez duk gauza bera.

GANIX - Herrian denek errespetatzen hute, Pello. Hurrek ere.

PELLO - Nik ere denak errespetatzen bai dizkiat.

ANTES - Pello ! Athor huna (Lxilik) Gorde zak hau hiretaño. Bi gizon dizkiagu herrian : hi eta ni. Bertze guziak gixonek dituk, gixonek.

MAYI - (Aitetik) Jainkosk arraselde on ! Ari zaizte harrasken ?

PELLO - (Ate barnetik) Pasé, macam, pasé ! Lé fam abor ! Pasé palenté ! Eskibus mi ! Orreboir memasel ! Gora mundua !! (Eta geki da)

V - Agerraldia

Antes, Ganix eta Mayi

ANTES - (Lavi-ri) Ze behar zinuon, gaixoa ?

MAYI - Etzako aizkorekin igorria ninduten ~~xorrozt~~arazteko

ANTES - Zerri ba hortzet. Eta egon. ^zaiater egina dugu zure lana. (Ca nix-i) Xorroztu zok hau. Edo...shatzia duk xorroztan ?

MAYI - Bai, bai. Ez naiz presatua. Etzako lanak eginak bai ditut.

ANTES - (Kutze zehar batetik, aterako da uso bat bizirik egur puska bati lotu)

GANIX - Eta ? Zuen etxo pullit hua, umore olean duzute beti ?

MAYI - Gure ^zaiater ? Bai, bai. Sekulen beino azkarrago dugu. Apetitu ona eta inderrak hobeak. Egun ere, berrerriondoko izigarria emana dau jaiki orduko.

GANIX - Obe hola, obe.

MAYI - Arentzat bai obe. Inderrak pittat ttipituko ba litzizkioke, ahagatik, ez nuke nik nigar eginen. Haren esku gogorran aldean

zer da pilotariarena ? HUUUUU! Ete nik abentzia ! : Anttes !
Amatxiren partez, heldu den ortzegunean merkaturat jitekoe bai da
ze denbora eginen dion grizoa ?

- ANTES - HUUUUUUU!
- GANIX - (Suten) Beina, beina, beina.... Ze denbora ?
- ANTES - Ze denbora, bai, ze denbora! Anttes amotzaren fama zebaltzen asia
bai da? Oraino Anttes ez bai duk lehengo gaixo ferratzaile zogo
huc ! Izpiritua asia bai zaio xorroxten. Ete jendae ohartu.
Ortzeguneko erren duzu ? HUUUUUU...! Aize-lego hunek bustans
urien sartur bai du !
- GANIX - (Suten) Zuen amatxiri, hunc zer erranen diozun : guri denbora
gela^garzetzen ibiltzea baino, hobe lukela etxeko idiek hunat ferrat-
zerat igorri.

- ANTES - Nagusiak behar luke manatu hemen ere.
- GANIX - Bai. Ete debruak manatzen. Debruak bai, debru gorri ad rdunak !
Infernu bai de hau, infernu ! Hala bizi ? Etxe maderikatu hun-
ten ? Bizi ! Hau de bizitzea ? Egón! egón! Baister aspertuko bai
naiz ni ere ! Ete egun batez, hemengo usaina nazkatirik, arrun-
du behar ba nintzeizuke, ez gero nire ondotik arrasteka te oiuke
etorri. Utzi ni bakarrik, bide-legiko xokaren batean leheregín
behar banu ere !

- ANTES - (Mayi-ri) Ikusten ? Hobeko predikari pullitek ditugu guk etxean.
Credo in unum Deum ! (Usor hartu-eta Mayi-kin delarik pulliki
guki beritze elderat :) París-eko berriak, haurra, Paristarreri
behar zaizkie galdetu. Et hedoien berriak ere gauza bera : he-
doieten bizi direneri. Zato, zato. Beratzean badut, eritzaren
puntan, xola ttipino bat emane. Handik mintzetuko zaiku hau.
Gaskoinak bezala dituzu hauek, haurra. Ekgerrekin mintzetuko
zaizkizu aixe, eta guk ez konprenitzen ! Zato, zato. Gozen
beratzerat, gozen. (Guki dire)

^{ganen}
VI - Agerraldia

^{illun}
Ganix ^{illun} eta goibel, zintzurra zorrozten asiko. Ezkerre-
ko leihotik, gizon multso bat ageriko oihuka, zerria organ sartu
nahiz. Ate-hegien bospasei tratulari agoki behi boten busten-
azpi eta errepeari beha. Haurrak ere nohiznahi ageriko, Ganix
gaixoari trufaka. Gizon zehar bet pasako, ate zintzinatik, ber-
tso berriak kante eta saltzen. Arrabotsa, oiú, marmura, burdin
soinu, mokoka ldi, kantu eta bertze, heldu bitez, merkatu usaina-
kin batean, nohiz-nahi eta ^{num-nahirik} ~~nahirik~~. Bitartean sartuko Mattin.

- GANIX - To! Mattin Urruñe-koa! Sar adi, sar ! Zer/huen hola ? Tretu tzer-
rdegin-erezi ?
- MATTIN - Tretu tzerre ? Tretu tzerrik ez duk münduan, gizona, lo egoki ez
denentzat. Ixilik zaizte hemen, merkatu-egun batetsko !
- GANIX - Ze etorri ere ? Gu erroazterat ?
- MATTIN - Pulliki, gizona, pulliki, ez neuk horterat etorria.
- GANIX - Ez, ez. Gu ere zalu abiatzen bai gaituk. Egun guzie odol tzerre
egiten ari gaituk eta, gero...
- MATTIN - Ze ba. Behar da barkatu.
- GANIX - Hobe hola.
- MATTIN - Denbora egiten dik ori. Denbora saps hunek...
- GANIX - Debru zehar arraioe ! Ez zakala etxe huntan denbora aipatu !
Aitu duk ? Lanho ustel zikin hoek gaitiztek eta errekan.
- MATTIN - So! Sooooo, gizona ! Soooooo ! Ordi ere orga sartu dirt nik be-
san !
- GANIX - Ze behar/huen ?
- MATTIN - To ! Behorra ferratu
- GANIX - Hemen ? Gure etxean ? Nun duk ?
- MATTIN - Bidien diet, mutikoaekin igorria.
- GANIX - (Goxoki) Ongi duk. Ferratuko diet nik behorre, behar bezala.
Eta... gaiski erranak barke. Ago. Behar duk/hik ere gure amotik
jastatu. (Edanoz) Lehengo behor gorriske goxo huc izenen duzu-
te ordi ere ? Ze behorre !
- MATTIN - (Kexu) Ez, ez. Saldu genien huc. Oraino huc hobe duk bri, leneko
eta.....
- GANIX - Tundik ekarri duzute ?
- MATTIN - Hau ? Zeeer.... Zeretik, gizona.... "Sergain"-etik. Zer ba ?

Ituli gu

5

- GANIX - "Sergsin"-eko behorre ? Ez duk orai ebere xuriska buztan luze bat, behin korrua errekerret eremen-eta, geroztik saingua gelditua ?
- MATTIN - Be ! Ahantzi lizkiat nik aspaldi kontu zahar hoek, gizona.
- GANIX - Hik ahantzi ? Nik ez ba . Behor ustakari urde zikina ! Famili guzia ere bere bezelakoa dik horrek. Ezagutzen diat, aspalditik horren arraza. Horren ama zenaren hizpa zaharrenak eraman zizkian "Iberrondo"-ko Koxdemari-ri, suziki batez, eskuko iru eriek. Eta horren aita zena baino ostikokoa, famatuagorik ez dik nihorik ezagutu eskualde huntan. Uki-zak hemen, hemen gizona, bizkor-hezur huntan. Ez duk koskorra atxematzen ? Haren orhoitzapena diat hau ere. Eta alaba ez omen duk aita-aren baino goxo-ago.
- MATTIN - Gizona, gizona !
- GANIX - Eta zer uste duk ? Debru zahar hori hemen ferratzten ibiliko gaitzela gu ? Pobreak gerala-te, ostikotik bizi ? Oe, nahi ba duk bertze erotzerengana.
- MA TIN - Gizona ! Ez hodi hole izitu ? Bartze aldiz batez, ekarriko dizkiat ferratzerat etxeko.... bildotzak.
- GANIX - Zer uste duk ? Hik emanikeko ogi-puskari beha naukala ? Ez nauk gose !
- MATTIN - Egarrri behar ba... ? (badoa)
- GANIX - (Oinaka) Urde zikina ! Baduk hik ere, hire behorren arrazako oitza !

VIII^{garren} - Agerraldia

- ANTES - (Beratzetik heldu)
- MAYI - Nola erranen diozu ematziri ?
- ANTES - Hole: ez duela bustiko bere parasola
- MAYI - Jin dedila trankil. Ez du izanen uri..
- ANTES - Ez ba da zeruan lanhorik ageri.
- MAYI - Eginen deutazu orai manatu ?
- ANTES - Zure zerbitzuko neuzu ni, gaixoa
- GANIX - Entzun ongi. Huna. Zazazi lesterka
- ANTES - Eta ekar-azu bi sos uso-bazka
- GANIX - Gizona goseak eta uriso asetzen ?
- ANTES - Norkiztik neusiak ez etxen manatzen ?
- GANIX - Bazkeltzeko ba nu xinger zarrono bat !
- ANTES - Tripe betetzea ote duk legetzet ?
- GANIX - Obe dut ixildu, heurra bat dut hemen.
- ANTES - Zazazi lesterka eta jin lehen bai lehen (Mayi goeki)
- GANIX - Zer duk hik hobi, ahun ? Errezak ! Mintza egi !
- ANTES - Bihotza nigarrez eta tripe kantari
- GANIX - Tripe ! Beta tripe ! Pitz-edi, gaixoa !
- ANTES - Zertako eginen duk odol gaixtoa
- GANIX - Etre barne huntan zerbeit ez ba doa
- ANTES - Ni koroa bai nauk, lanhotarit noa (Gaki da)

VIII^{garren} - Agerraldia

Ate antzinetik ertalder hasako, artzaine ikarki duela xixtuko.
ardien tartetik ezin ibili, Kontsesi heldu. Bizikleta eskuan
ekarki sartzen da.

- KONTSESI - Akaba eta akaba ! Azken eguna dut egungoa.
- GANIX - Zer duzu Kontsesi ? Zu ere ez kontent ?
- KONTSESI - Merkatu-egunarekin ez neuzute ni eiko beziritz etxetik kanpo ilusiko. Jaun Erretorek belhauniko galdeturik ere. Oiu, marruma, edar-golpe, ostiko, zimnokeri....
- GANIX - Burdinentzet ez dire ba merkatu-egunak edorrenak izaten ?
- KONTSESI - Merkatu-egunak ?
- GANIX - Holakoetan jakiten bai dire inguruko berri te istorio guziak.
- KONTSESI - Bai ! nik bezelako apez-neskato batek ez, ez du holako istorioak jakiteko merkatu-egunen beharrik izaten.
- GANIX - Nola duzute Jaun Erretora ?
- KONTSESI - Xahartzen, gaixoa. Egunetik egunera xahartzen.
- GANIX - Gure neusia bezela, beraz, zuene ere ?
- KONTSESI - Zende ixilik, gizona ! Zuen neusia, bere ibilki da.
- GANIX - Gure aldiz, nere besotik. Bakarrik meza emateko ere ezpeita trebe. Ahantzi egiten guziak. Egun ere, prefezio guzia nik

Kontse behar izen diet aldere gibeletik. KahaRTU zaigu gaixoa !
Ete gero ete lan gehiago izaki ! Kofesetzeko ere ! Sekulan
beino gizon-multso handiagoak jiten zaizkio Ezpeleta-tik eta,
Seppere-tik eta, Sara-tik eta Urruñatik eta...

- GANIX - Konfesetzeko ?
KONTSESI- Ze ba ! Ez bai du aditzen ! Ete aditzen dituenek ere, leister
shentzi. Nahi nituzke ikusi, heien erime beltzak !
GANIX - Beraz, guri bezala, zuri ere ?
KONTSESI- Zuri bezala ?
GANIX - Guri ere ez baizizkigu zaldi prestuenek urbiltzen...
Ete zu nola bizi zira, Kontsesi ?
KONTSESI- Toi Erretor-neskato gehienek bezala : geroko esperantzen, ni ere.
Goizean ppez-mutil eta eguerdiz sukeldari. Egunez zangoak mogi
eta gauaz beharris erne. Gaztetan amodiorik ez eta zahartzea...
GANIX - Cino ere...
KONTSESI- Uste duzu ?
GANIX - Ez, ez... ya, ya, ya... tira, tira... ez, ez...
KONTSESI- Ori ! Zertute duzu ? Zuri beha negola ? Ez nuke nik gure Jaun
Erretore utziko, zu bezalako gizon kankeilu batengatik.
GANIX - Gurea akabo da Kontsesi ! Ordikogoi ta amar urte, gogoan
duzu ?
KONTSESI- Ba ! Ahentziak ditut nik denek.
GANIX - Nik ez ba, Kontsesi. Bortzetako mazarra emeiko ediz joana nauzu
gazte-denboran, ez beti otoitz egiteko. Zu hau egoiten bai ni-
nen. Neska pullitagarik ez dut ikusi, geroztik.
KONTSESI- Orduko Gnix ere, mutiko ederre zen ba...
GANIX - Zuk zure apezari ez utzi nahi ta.... nik ere ez nere arotzari
ta....
KONTSESI- Lege zaharreko zenbat neskato ez dire hola mutxurdin geldituzki
GANIX - Ni bezalako mutil zozo zorbait ere. Ze nauzu !
Ze behar zinuena Kontsesi ?
KONTSESI- Erretor Jaunak igorria nau zuzangenet
GANIX - Gureganet ?
KONTSESI- Bai. Ete ez esku-utsik. Huna ! (Eskuan ekarki pakete ematen dio)
GANIX - Zer ari zaizte, Kontsesi ?
KONTSESI- Idaki-zu, ideki (Emetzeki soineko pullit bat ageriko)
GANIX - Aitarren eta Semearren.... nere esku zikin hauekin... Ze gauza eder-
ra ! Brinen.... Hau zerteko dugu guk, Kontsesi ?
KONTSESI- Zuen arentza-ri ez lieke itsusi izanen, nik uste. Holako neska
pullite ! Marixen-en ezteiak ez urrun eta... Gure Jaun Erretore-
ri ekarria zioten bere iloba batentzat. Ete huc zuzatz oroit.
Beinan entzun ongi, Gnix : Hau bego hol-hole, gure aitarren, xixi-
lik. Nihor ez bai du gure arteko berri jakin beharrik. Entzun ?
GANIX - Geixo Erretore ? Gohortuz dela ? Zorbait entzun du, ahagetik !
KONTSESI- Kolore horrek pulliki emanen dio zuen Arantzari, nik uste.
GANIX - Beinan... Kontsesi.... Berente heldu zaizte
KONTSESI- Berente heldu ?
GANIX - Aspaldik etxean dizu, Gure Arantza-k Marixen-en, esposetako
soinekoe !
KONTSESI- Brosia diozute ?
GANIX - Ta ze ba ! Zer uste zinuten, Kontsesi ? Mixerien ginole ? Ohoio
ez gaituzu hoin behere eroriek, Kontsesi. Neskek berak autetuz
dizu, espaldi, bere gustuko soinekoe.
KONTSESI- Herrian zer ari dire ba ? Bekrizkeriz zornahi erroten ?
GANIX - Gaixoa ! Herriaren mihiluzakeriari begira ba zegozte !
KONTSESI- Ahalketua nauzu, Ganix, ahalketua ! Gure Jaun Erretoreari zer
erren behar diet nik orai ?
GANIX - Errenen diozu hoia : ez diogula soinekoe hartuko. Beinan esti-
matu bai. Lur idorrek uri pullit, huc estimatzen duen bezala.
KONTSESI- Jesus! Jesus ! Ahalketua geki naiz, Ganix, ahalketua !
GANIX - Ahalketua ? Neri, aldiz freskatu naizela iduri zaut, Kontsesi,
freskatu !
KONTSESI- (Atetik) Ostikopa bat hartua dut eta, ez nukela orai edar-gol-
perik hartu behar.
GANIX - Zozz gustien, gaixoa, zozz gustien. Jankeo lasia duzu merketia
uttipitzen.

IX^{ganen} - Ageraldia

Genix bakarrik.

GANIX - Liburuzue maderikatuek ! Mihi luze hoek herritik pikatzeko nun diot zikora ? Soinekoric ez ! Egia dute bai ! Soinekoric ez ! Beinan egiekin egiten bai da gezurrekin bezain kalte komeka aldiz. (Leihotik oalke) : Houp ! Ez ki, ez... bertze mutiko hua... hi bai, hi... Urruñe-ko Mettia ikusi duk ? Hor izanen duk ostetuan.. Berriok agertzeko... To, Mettin ! Ator hunsino, gizona ! Jitako erran diet ! Ahentzi itzak lehengoak, gizona ! Garbituko dizki-egu hoek denek ! (Sartu-ete, beru biten, baratzerri begira) : ukonen duzu, haurra, zuk ere zure soinekoa ! Beina bertze neskek bezala zuk ere : zihaurrek eresia. Harteko behar zahar horrek ostilkoz ete atsikiz suntsitu behar ba nru ere.

XI^{ganen} - Ageraldia

Genix ete Mettin

MATTIN - (Leihotik) Zer duk ?
GANIX - Zer di, Mettin; behar gaituk mintzatu.
MATTIN - Zer duk ? Astiko erranak ez balio ? Itz bateko gizona duk egi-
zako gizon.
GANIX - Astian, astian... ez neuk ni mintzatu
MATTIN - Nor kuen be hira plezen ?
GANIX - Nor ? Hau (Arno-bonbilla erakusten dio)
MATTIN - Ba ! Guri ere gertatzen zaizkigu holskoak. Ori ori aiz hi, ori,
gizonki mintzaten.
GANIX - Igorri zak, iluntzean, hira behar hori. Ferratuko diogu guk hemen.
MATTIN - Ori duk, ori, behar bezala mintzatzea. Mila liburatan eginen
diogu.
GANIX - Ez
MATTIN - Beietz, gizona !
GANIX - Ezetz
MATTIN - Zenbat behar duk ba ? Bi ? Huna hemen. Hartu itzak.
GANIX - Lena eginda pagetuko duk, bizi ba gaituk bedoren.
MATTIN - Ar zak, gizona !
GANIX - Izetz !
MATTIN - Eskualde huntan ez duk, gizona, hira beina kasko gogorregorik
Adi zak. Gure behorra ez duk gaixtoa, berez. Baina gaizki atxo-
tua izaki-ta, etxekoeri gain hartua. Arotzekin baldurtzen da
piskot. Berne onekoa bai duk, berez. Urbil adi pulliki. Ahal
ba duk, kantuz. Soineu maite dik izagarri. Atxikiok zangoa gol-
pez : ren ! Lehon golpea atxikitzen ba diok, tronkil aiz gero.
Ar zak, aintzinetik, arno-xurruta bat. Ba aiz ?
GANIX - Oino bai, banauk
MATTIN - Erran bezala berez ? Ikusi arte ?
GANIX - Bai, bai. Ikusten bai gaituk....
MATTIN - Iduri duk gerlora holsa ! Behar zahar batengetik, gizona, hoin-
bertze espartu ? Ez duk gero gizonik.
GANIX - Orten... ez ago, nik uste, egitik urrun

XII^{ganen} - Ageraldia

Genix ete Mayi

MAYI - Zer duzu hola, gaixoa ? Lo ?
GANIX - Lo edo....
MAYI - Huna hemen urtso-bezka.
GANIX - Ontse duzu. Jarri zeite hemen. Haldu niaz berale. Aintzurra
ere ahentxu dut. (Bere biten *) Behar diet soineko kolorea
geldetu. Kuria beharba ? Bere beltzerrana bai da, gorriak ere
ez dio, nik aste, itsusi emanen.... (Baratzeko atetik gaki)
MAYI - (Jarririk. Josteko puskek atarako ditu sarratik)
ete ilusleri behe) Niaz arte atxiki behar nautu ni hemen xoro
hauek ? Eta nik denbora galtzen ez maite ! Mixeri n degoz hauek
urzetatik ! Oraitzet jakine dut plezen : etxeko albari soineko
beraie egiteko ere, ez omen dute sosik ! Ez nindake ni etxe hun-
tarat esosatuko ez ete.... ez ete.... !!

--:--:--:--:--

OIALA

BITARTEA

- Mayi eta bi fraideak : Aita Ioaanes zaharra eta Aita Unai gaztea. Bi fraideak sartuko. Mayi, jarririk, sagar gorri bat jaten ari. Gero ageriko arotza, Ganix, Katalin eta bertzeak.
- Aita Ioaanes - Hemen da. Sar gaiten. Te.. hoek non dira ?
Nere menatu ez badute egine
Behariko tuzte entzun, orai, nik erranak.
Zintzo behar bai dire bete itz emanak.
Galdetus nien, han mendi mendiko,
Burni-gurutze bat eliza gaineko
- Aita Unai - Nik behar nuen elizako ezkila
Etorria nauzu egun, haren bila
- (Mayi-ri beha) Aita Ioaanes ! Pehazu neska pilit hua...
- Aita Ioaanes - Fraideak hohe du lurrerat burua
Lectoak erreski hartzen bai du sua
- Aita Unai - Baina Aita Ioaanes, aingerua bai da !
- Aita Ioaanes - Emaztekietan aingerurik ez da
Te zuk, Aita Unai, fraide eta gaztea
Ho be duzu ez geldi neskatxeri beha
- Aita Unai - Zer du eskuetan ? To! sagar gorria
- Aita Ioaanes - Debrusk ba du beti ai eitzekia
Dela sagar, lore, xori edo irris
Pekaturiko bide duzu emaztekia
- Aita Unai - Baina, Aita Ioaanes, non da pekatua ?
Nik ez dut pekatuz ikusten mundua
- Aita Ioaanes - Egungo fraideak ! Pekatua nun den ?
Gizonaren baitan : hemen! eta hemen !!
- Aita Unai - Nola beteko zait bernes pekatuz ?
Otoitzan ere ari ba naiz kantuz,
Eta Jainkoaren beti esperantzan.
Argi lotzeekin lotzen ba naiz dantzan ?
Ari ba naiz dantzan Jainkoari buruz,
Nola beteko zait bernes pekatuz ?
- ANTES - (Beratzetik heldu, entzu, ditu ezken bertso hauek eta :)
Gure Aita Unai beti alegara
Te Aita Ioaanes, aldiz, ~~nik~~ eta minbera
Bieterik nor den urbilena
Zaharra beharba... Agian gaztene
Agur Aita Ioaanes! Aita Unai, adi !
Bi fraide.... arotz bat
- Aita Ioaanes - Iru bekatari !
- ANTES - (Bere baitan) Fraidetan nik uste, gauza bera izaki :
Zaharra mokoka, gaztea kantari
Ni, xoroa ba naiz, mintzo ehal naiz garbi.
(Antes gaki da Gurutzearen xeka eta ekarki dio Aita Ioaanes-i
"Oi Jesus Gurutzean" kantuz :)
Zuk manatu bezala
Egine dut gurutzea
Nik sutan burniari
Emana diot moldea
Elizaren gainean asiki duzu emaita
Gure mendiko elizana
Iduri luke urtoa !
- (Aita Ioaanes-ek hartuko gurutzea. Aita Unai ondoan du. Arotza, tar-
tean, eintzurrazekin gaki haurraren gana.)
- A. Ioaanes - Gurutzea duzu lagunik onena
- A. Unai - Baina Aita Ioaanes, gure Jainko dena
